

Funtsezko baliabideak:

Baliabide fisikoa: gure lokaleko armairu eta dekorazioak guk ekarritakoak dira, erabiltzen ditugun materialak lehen eskukoak dira.

Baliabide intelektual eta giza baliabideak: Manexek, internet bidez eta telefono bidez beste enpresa edo dendekin komunikatzeko esperientzia duenez, produktuak lortu ahal izango ditu. Bestalde, Mariak, dendan egingo du lan, bezeroekin eta dendako gauzak antolatzen. Bere esperientzian oinarrituta pertsonekin oso harreman onak izaten ditu. Bukatzeko, Laia marketinaz arduratuko da, banatzeaz eta baita ere interneten jartzeaz. Horrez gain, astean sukaldaritza saioak eskaintzen direnean bera arduratuko da saio horiek aurrera eramateaz. Finantza-baliabideak: hasiera batean bakoitzak diru kopuru bat jarriko dugu dena aurrera eramateko eta negozioak ekartzen dizkigun irabaziekin diru kopurua bueltan jasoko dugu.